

11/24

irizpena

Adikzioei buruzko Informazio Sistema
sortzen duen
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko azaroaren 5a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazerarako Batzordea

Irizpena 11/24

I.- AURREKARIAK

2024ko urriaren 14an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Osasun Sailaren idazkia sartu zen. Horren bidez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontsultatu zaigun arauaren 1. artikulua arabera, xedea EAEko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzea eta bere funtzionamendua arautzea da.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluko Batzordeko kide guztiei haiek proposamenak eta iritzia eman zitzaizkien eta horiek, aldi berean, zegoen Lan Batzordeari helaraz ziezaioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritik.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2024ko urriaren 25ean bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen Osoko Bilkurak landu dezan, bertan azaroaren 5ean gehiengoz onartu da.

II.- EDUKIA

“Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektuak” zioen azalpena, 9 artikulua, bi azken xedapen eta eranskina ditu.

Zioen azalpena mendekotasunak (substantziei zein jokaerei lotutakoak) gizarte-fenomeno oso zabal eta konplexuak direla aipatuz hasten da, arrazoiengan eta garapen-prozesuan elkartzen diren elementuek elkarrekintzan baitihardute eta eremu eta arlo asko nahasiak egon baitaitezke. Adikzioak sortzen dituzten faktoreak oso konplexuak eta anitzak dira. Izan ere, norbere zaurgarritasun-faktoreei bestelako gizarte-faktoreak gehitu behar zaizkie.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak adikzioak hainbat diziplinetatik eta osotasunean jorratu nahi ditu (bai menpekotasuna sortzeko gai diren substantziei buruzko adikzioak, bai jokaera-adikzioak ere). Lege horren 60.1 artikulua haxe ezartzen du: *“Osasun Administrazioak, informazio eta zaintza epidemiologikoko sistemen bidez, herritarren artean adikzioek substantziei buruzko adikzioak eta jokabide-adikzioak duten magnitudearen eta hainbat maiztasunetan dauden desberdintasun sozialen berri emango du: biztanle-maiztasunean, asistentzia-maiztasunean, morbiditatean eta hilkortasunean. Horretarako, besteak beste, tratamenduaren, heriotza-tasaren eta artatutako larrialdien inguruko adierazleak ezarriko dira”*.

Halaber, Lege horrek jasotzen du Eusko Jaurlaritzak adikzioei buruzko sistema zentralizatu bat ezarri behar duela, kontsumoaren eta kontsumoari lotutako arazoengatik ebaluazioa eta jarraipena egin ahal izateko (66.d artikulua).

Gaur egun gizartean informazio-sistema aurreratuak eskuragarri ditugu, eta zerbitzu sozio-sanitarioetan eskudunak diren administrazio publikoak sistema horiek arretarako eta esku-hartzeetarako gordetzen dituzten datu pertsonalen tratamenduz arduratzen dira. Administrazio publikoek eta arlo sozio-sanitarioan diharduten erakundeek informazio asko erabiltzen dute eta informazio hori sistema seguruetan tratatu behar da, hala, herritarrek bermatuta izan dezaten beren datu pertsonalak konfidentziaz tratatuak izango direla.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legeak hau ezartzen du 88.1 artikuluan: *“Administrazio publikoek, osasunaren babesa ziurtatzeko, neurriak eta jarduketak bultzatu eta garatuko dituzte adikzioei arreta integrala emateko bai droga-mendekotasunei, bai eta jokabidezko adikzioei, honako eremu hauei dagokienez: prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, osasun-laguntza eta laguntza soziosanitarioa, gizarteratzea eta garapena eta ezagutzaren kudeaketa.”*.

Lege horrek arautuko duen EAEko Osasun Publikoko Informazio Sistema osatuko dute osorik edo partzialki osasun publikoaren xedea partekatzen duten edo osasun publikoko erabakiak hartzeko informazio garrantzitsua gordetzen duten informazio-sistemak, albo batera utzita sistemak sustatzen edo kudeatzen dituen administrazioa eta sistemak sortzen dituen sektorea (publikoa edo pribatua).

13/2023 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, adikzioak osasun publikoaren barneko jarduketa dira. Osasun publikoaren arloko gainerako jarduketekin integratzen dira eta osasun-agintaritzak zehazten ditu EAEko Osasun Planarekin lotuta.

Bera aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak hau dio 9.b) artikuluan: Sistemaren printzipio programatikoak betetzea errazteko, lehentasunez garatuko dira, beste batzuen artean, beharrezko informazio-sistemak sortzea, sistemako erantzukizun-maila ezberdinetan egokiro jardutea errazteko.

Azkenik, herritarren osasunaren inguruko datu sentikorren inplikazio berezia eta datuak jasotzea nahitaezkoa izateko eraldaketa ezartzearen behar garrantzitsua direla-eta, arau hori datu pertsonalak babestearen araudiarekiko ikuspegi ezberdinetatik landu behar da. Pertsona fisikoak datu pertsonalen eta datu horien zirkulazio librearen arloan babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB erregelamenduak (Horren bitartez Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra, 95/46/CE Zuzentaraua indargabetu zen) eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak datu pertsonalak legez tratatzeko zenbait gaikuntza ezarri zituzten, eta horietako batzuk administrazioek berezkoak dituzte eginkizun publikoak betetzen dituztelako.

Aipatutako xedeak betetzeko, Dekretu Proiektuak honako **artikulu** hauek garatu ditu:

1. art. Xedea
2. art. Adikzioei buruzko Euskadiko Informazio Sistemaren izaera eta hierarkia-mendekotasuna.
3. art. Helburua.
4. art. Egin beharreko jarduerak.
5. art. Informazio-iturriak eta datuak.
6. art. Datuak emateko eta tratatzeko obligazioa.
7. art. Datu pertsonalak babesteko araubidea.
8. art. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.
9. art. Aurreikusitako datu pertsonalen komunikazioak.

Eranskina:

Adikzioei buruzko Informazio Sistema osatzen duten aldagaiak.

- Substantziekiko adikzioetatik tratamenduan onartzeko fitxategiaren oinarritzko egitura.
- Jokabide-adikzioetatik tratamenduan onartzeko fitxategiaren oinarritzko egitura.
- Larrialdietako fitxategiaren oinarritzko egitura.
- Heriotza-kasuetako fitxategiaren oinarritzko egitura.

III.- GOGOETA OROKORRAK

“Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektuari” buruz dugun iritzia emateko eskatu digute. Justifikazio-memorian jasota dagoen moduan, bere helburua Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean (aurrerantzean, Adikzioen Legea) jasotako xedapenei arautegi-babesa ematea da. Hau da, legezko babesa ematea gure autonomia-erkidegoan Toxikomaniei buruzko Informazioaren Estatuko Sistemaren bitartez jasotzen dugun informazioari, eta helburu hori positibotzat jotzen dugu.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, arau horren xedea (“EAEko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzea eta bere funtzionamendua arautzea”) proposatutako xedapenek betetzen dute, eta ez da beharrezkoa eranskin batean zehaztea aipatutako informazio-sisteman sartuko diren eremuak.

Gure iritziz, Dekretuan eranskina gehitzean dekretuaren edukia mugatzen da eta etorkizunean hobetu eta bikaindu ahal izatea zailtzen da. Uste dugu askoz ere eraginkorragoa izango litzatekeela etorkizuneko araudi-garapenetarako uztea (aldizkako aginduen edo ebazpenen bidez) eta horietan egitea dagozkion eguneraketak.

Hala eta guztiz ere, eranskina ezabatzearen aldekoak izan arren, informazio-sistema hartuko duen sistema garatzen denean oso garrantzitsuak izango diren bi kontu aipatu nahi ditugu.

Lehenik eta behin, badakigu gaur egun ez dagoela adostasunik jokaera-adikzioen tipologien inguruan, eta jolasarekiko adikzioak duen garrantzia albo batera utzi gabe, gure ustez, horren inguruko informazioa jasotzean bestelako jokaerak ere kontuan hartu beharko lirateke (Internetekiko eta sare sozialekiko adikzioak edo erosketa konpulsiboak, eta hain aitortuak ez diren beste batzuk, hala nola sexuarekiko edo lanarekiko adikzioa). Horri esker, errazagoa litzateke jokaera horiek ikertzea eta hobeto sailkatzea.

Bigarrenik, gogorarazi nahi dugu Adikzioen Legearen 60.1 artikulua zehazten duela beharrezkoa dela gizarte-desberdintasunak adikzio-jokaeretan neurtzea. Horrenbestez, adikzioetatik tratamenduan onartzeko fitxategien oinarritzko egituraren desberdintasun horiek datuetan oinarrituz kategorizatzea ahalbidetzen duten aldagaiak jaso beharko dira, adibidez, lan-egoerari buruzkoak (lana/langabezia) eta diru-sarreraren ingurukoak (soldata, laguntzak edo beste batzuk). Adierazle horiek ezinbestekoak dira adikzioak dituenaren baldintza sozioekonomikoak ezagutzeko.

Informazio horrekin, zerbitzu sanitarioetako, sozialetako eta soziosanitarioetako langileen jarduketak bideratzeaz gain, bestelako eragileek adikzioen inguruko informazio-jarduerak, hedapenekoak eta prestakuntzakoak egitea erraztuko da, besteak beste, Osalanek (laneko segurtasunean eta osasunean) edo hezkuntza-administrazioak (irakasleei zein gurasoei zuzendutako jarduketetan).

V.- ONDORIOA

EAEko EGABen iritziz egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen oharrek aintzat hartuta.

Bilbon, 2024ko azaroaren 5an.

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria